

EH Bilduren proposamen sozio-ekonomikoa: ezohiko garai batean, ezohiko ariketa.

Erabat ezohikoa den egoera baten aurrean gaude. COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz aurrekaririk ez duen krisi batean murgildurik gaude eta, aldi berean, planeta eraldatzen ari ziren disrupzio sozial eta ekonomiko handiak bizkortu egin dira. Bizi dugun unearen dimentsio estrategikoa ondo irakurtzea ezinbesteko gertatzen da.

Alde batetik, birusari aurrea hartu eta osasuna bermatzearekin batera, ahalegin hau eraginkorrago bilakatzeko, arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurriak hartu behar dira. Bestetik, eta berehala, etorkizuna prestatu behar da, politika publikoei ikuspegi berri bat aplikatuz, epe ertain-luzerako hausnarketatik abiatuta.

Ezohiko egoera honek eskatzen duen ezohiko ariketa politiko osoa egiteko parada eskaintzen dute aurrekontuek

EH Bilduk, ordea, izaera estrategikoa onartzen die 2021eko aurrekontuei, ezohiko egoera honek eskatzen duen ezohiko ariketa politiko osoa egiteko parada eskaintzen dutelakoan. Baina esan behar dugu ere erronka aurrekontuetatik haratago doala. 2021an dirua zertan inbertituko den zehaztea garrantzitsua da, urtero bezala, baina egoera historiko honetan, aurrekontuen eztabaida aipatu dugun testuinguru zabalagoan txertatu egin behar dela argi daukagu.

Hori horrela izanik, egoerari tamaina hartuta, lehentasunak argi izanik eta honaino ekarri gaituzten politikak aldatzearen beharraren jakitun, hiru ardatzen bueltan osatzen den eskaintza sozio-ekonomiko integral bat luzatu nahi die EH Bilduk Jaurlaritzari eta hau babesten duten alderdiei, EAJri eta PSE-EEri, 2021eko aurrekontuen testuinguruan.

Epe laburrean, baina baita ere epe ertain eta luzerako, oinarri sozial eta ekonomiko minimo partekatuak adosteko eskaintza, hain zuzen ere. Gure ustez, Aurrekontuak, Europako

Abagune honetan datorren urteko aurrekontuekin batera, datorren hamarkadako norabidea ere eztabaidatu behar da

funtsak eta diru-sarrerak dira eztabaidaren, eta balizko akordio baten, ardatzak. Abagune honetan aurtengo aurrekontuekin batera, datorren hamarkadako norabidea ere eztabaidatu behar delako, eta bi gai honekin batera politika publikoak sostengatzeko diru iturriaz, fiskalitateaz, alegia, hitz egin behar delako ere.

1- 2021EKO AURREKONTU PROIEKTUA

ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU

NEURRIAK:

- **Osasun Sistema indartu;** birusari aurrea hartzeko beharrezkoak diren baliabide material eta giza baliabideekin: besteak beste, aztarnari, ikerlari, laborategietako taldeak handitu. Txertoaren horizontea hurbiltzeko, baheketak burutzeko eta txertaketa kanpaina gauzatzeko giza taldeak indartu. Galdutako denbora berreskuratzeko (moteldutako proiektuak eta atzeratutako jarduerak), Lehen Arreta indartu eta garai berriari egokitu.

DIRU-PARTIDA: 140 MILIOI EURO

- **Hezkuntza Sistema indartu;** gehiago eta hobeto inbertitu norabidea aldatzeko. Eskola publikoetako azpiegiturak eraberritu, haurreskolen doakotasunari bidea eman, ratioak jaitsi, plantilla handitu eta egonkortu, eta gure ikertzaileen baldintzak duindu.

DIRU-PARTIDA: 50 MILIOI EURO

- **Gizarte Zerbitzuen Sistema indartu;** Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistema publikoaren prestazio eta zerbitzuak garatzeko, berdefinitzeko, birdimentsionatzeko eta indartzeko urteko inbertsioa bikoiztu. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eman den eskaeraren handitzeari erantzun ahal izateko udal eta mankomunitateek beren Gizarte Zerbitzuak berdimentsionatu eta indartzeko gizarte-langileak kontratatu ahal izateko diru-laguntza deialdia berreskuratzea.

DIRU-PARTIDA: 14 MILIOI EURO

ZIURTASUN EKONOMIKOA ESKAINI

NEURRIAK:

- **Euste neurriak direla-eta ohiko funtzionamendua mugatua eduki duten sektore ekonomikoak erreskatatzeko funtsa;** aurten ere normaltasunera itzuliko ez den errealitatea biziko duten (eta bizi duten) sektoreei erantzuna ematea: hala nola, ostalaritza, merkataritzaren zati handi bat, artista, sortzaile eta kulturgintza eta industria kulturalako langileak edo turismoa. Horrela, funtsaren helburua, jasandako galerak konpentsatzea, aktibitatearen suspertzea eta bideragarri egitea eta jardueraren etendura partzial edo osoaren egoera hipotetikoei erantzutea izango litzateke.

DIRU-PARTIDA: 200 MILIOI EURO (DIRUZAINZAKO GERAKINAK)

- **Gazte prekarizazioaren kontrako programa;** gazteek pairatzen duten egiturazko lan-prekarizazioari aurre egin, kalitatezko enplegurako euren sarbidea erraztu eta norbere emantzipazioa proiektuan laguntza eskaintzeko, gazteen kontratazio masiboa sustatzeko diru-laguntza programa berria indarrean jartzea; kontratuek gutxieneko batzuk bermatu behar dituzte (mugagabeak, 3 urte mantentzeko konpromisoa, lanaldi osokoak, hitzarmen kolektibo propio baten pean, 1.200 euroko langa gainditu 14 ordainsaritan eta lanposturako formakuntza eta egokitzapena bermatzea).

DIRU-PARTIDA: 20 MILIOI EURO

- **Gure babes sistema zabaldu egoera berriei premiaz erantzuteko;** Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari sarbidea erraztu langile autonomoei (jarduera ekonomikoei lotutako ondarearen kontsiderazioa), ABEE (ERTE) egoeran dauden langileei (lanagatiko diru-sarreraren antzeko tratamendua) eta soldata baxuko langileei (enplegurako pizgarrien iraunaldia).

DIRU-PARTIDA: KREDITU ZABALGARRIA

- **Argindarraren prezioaren igoeraren ondorioak arintzea;** Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako energia gasturako gehienez eman daitekeen diru-kopurua bikoiztea eta gutxieneko zenbatekoa ezartzea.

DIRU-PARTIDA: 5 MILIOI EURO

- **Etxebizitza errentamenduaren prezioa mugatzea;** Jaurlaritzak ez du oztopatutako etxebizitza errentamenduaren prezioa mugatzeko proposatutako tresna ezberdinen garapena eta aplikazioa.

DIRU-PARTIDA: 0 EURO

ZAINTZA

ADINEKOEN ZAINTZA

NEURRIAK:

- **Adinekoentzako egoitza-zentroek bete beharreko baldintza materialak, funtzionalak eta langileen aldetikoak hobetzea;** 126/2019 Dekretua aldatzea 2021. urtean, langileen aldetiko baldintza berriak 38/07 Foru Dekretua, adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituena, eta azken asteetan Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako neurriak izango ditu abiapuntu.

DIRU-PARTIDA: 0 EURO

- **Pentsio txikienen osagarriaren murrizketaren hamarkadari amaiera ematea;** Diru-Sarrera Bermatzeko Errentan aplikatutako murrizketa guztiak era gradualean ezabatzeko bidean, pentsiodunei bermatutako gutxieneko diru-sarrerak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legean jasotakoak izango dira. Neurri hau zaurgarrien diren bizikidetzaren unitate berezien kasuan ere aplikatuko da (indarkeria matxistaren biktimak eta guraso bakarreko familiak).

DIRU-PARTIDA: KREDITU ZABALGARRIA

PLANETAREN ZAINTZA

NEURRIAK:

- **SHESAren desagerpena;** larrialdi klimatiko egoeraren onarpenarekin bat etorriz, diru publikoarekin hidrokarburoak bilatzeari uztea eta esfortzu guztia berriztagarrien hedapenari bideratu.

DIRU-PARTIDA: 0 EURO

2- NEXT GENERATION EU

2021eko eta hurrengo urteetako aurrekontuetan izango duten eragina eta garrantzi estrategikoa kontutan hartuz, ezinbestekoa da *Next Generation* Europar funtsen inguruko lanketa bateratu bat egitea.

MARKOA

Europar *Next Generation EU* funtsen **eztabaidarako marko** iraunkor bat sortzea urtarrilaren 31rako.

EUROPAR FUNTSEN MARKO POLITIKO IRAUNKORRAREN HELBURUAK

Europar funtsen **MRR** atalerako proiektu estrategikoen **leheneste ariketa** bat egitea, Madril eta Bruselako galbahe prozesuaren aurrean hauen defentsa bateratua egiteko.

Europar funtsen **REACT-EU** atalarekin (426 milioi euro) hurrengo bi urteetan indartuko diren politika publikoak eta finantzatuko diren proiektuak **adostea** 2021eko aurrekontu-proiektuaren testuinguruan.

Europar funtsen **kudeaketa zuzenerako proposamenak definitu**, Bruselarekin harreman zuzena bultzatuz eta Europar funtsen etorrerak ekar ditzaken balizko neurri murriztaileen aurkako erantzuna definitzea eta defentsa bateratua egitea.

3- DIRU-SARRERAK

COVID-19ak sortutako egoerari zein gizarte gisa ditugun erronkei eraginkortasunez eta era bidezkoan erantzuteko behar-beharrezkoa da diru-sarrerak gehitzea, beti ere, krisiaren faktura betikoek ordaindu ez dezatela bermatuz eta etorkizuneko belaunaldiei gehiegizko zama utziko ez diegula ziurtatuz.

Horregatik, bi proposamen zehatz ekartzen ditugu egoera bideratzeko:

- **Zerga-erreforma sakon bati heltzea;** zerga-politika progresiboagoa, ekitatiboagoa eta bidezkoagoa ezarri, COVID-19ak diru-sarrera publikoetan eragindako triskantzari aurre egiteko, gastua eta inbertsioa soilik belaunaldien arteko elkartasuna arriskuan jar dezakeen zorpetze-politika batean ez oinarritzeko, herri gisa ditugun erronkei lidergo politiko sendo batetik heltzeko eta EAEko presio fiskala Europako Batasunakoarekin parekatzeko.
- Zerga-erreforma gauzatu bitartean, **COVID-19 aparteko tasa berehala indarrean sartzea**, errekareru gisa, gaitasun ekonomiko handiena duten pertsonen eta enpresen hainbat zerga-tasa aldi baterako igoaraziz. Errekargu hori datozen lau urteetan ezarriko da honako zuzeneko zerga hauetan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondarearen gaineko zergan, eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan.

Horretaz gain, derrigorrezkoa da gehiago zorpetzeko aukera irekita uztea, politika publikoetatik aldakorra den egoera bati ahalik eta eraginkorrena den erantzuna emateko. Are gehiago, Europak ezarritako zerga arauak indarrean ez daudenean.